1

2019/01/22an EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURA .

SESIÓN EXTRORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 22/01/2019.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburu ordea

Josu Ezkurdia Santamaría

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela
Maite Uribe Beristain
Maite Zubia Atxaga
Aitor Zubizarreta Alegría
Aintzane Agiriano Errasti
Edorta Barandiaran Garcia
Maider Otamendi Tolosa
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2019ko urtarrilaren 22an, arratsaldeko seietan, Udaletxeko Osoko Bilkura aretoan, Josu Ezkurdia Santamaria jarduneko Alkate-Udalburu jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ezohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Jose Ramon Zubizarreta Alegria eta Rafael Bernal Gato.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas del día 22 de enero , en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente en Funciones Josu Ezkurdia Santamaría, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten Jose Ramón Zubizarreta Alegria y Rafael Bernal Gato.

## 1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2018/10/23, 2018/11/26, 2018/12/04 eta 2018/12/11.

## 2.- ALKATETZAREN ADIERAZPENAK

2019ko urtarrilaren 16ra arte Alkatetzak hartutako erabakien berri eman da, eta berariaz 26/2018 kreditu aldaketa espedientea onartzeko hartutako erabakiaren berri.

## 3.- CESPA, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A.- ENPRESAK 2010. URTEAN JARRITAKO BEHIN-BEHINEKO BERMEA ITZULTZEA.

2010eko ekainean Banco Sabadell S.A.-k emandako abala jarri zuen CESPA, COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS S.A. enpresak KALE GARBIKETA ETA ANTZERAKO LANAK ESKORIATZAN EGITEKO ZERBITZU PUBLIKOAREN KONTRATAZIOTIK sortutako betebeharrak zuzen beteko zituenaren behin-behineko berme gisa.

Udalbatzarrak 2010eko maiatzaren 8an hartutako erabakiz, kontratu hori behin-behinekoz esleitu zitzaion CESPA COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A. enpresari 136.118,26 eurorengatik (BEZ barne). Kontratua baldintza-agiri administratiboei eta teknikoei, eta esleipendunak bere eskaintzan proposatutako hobekuntzei lotuta zegoen.

Erabaki horretan bertan eskatzen zitzaion enpresari kontratazioa arautzen duten baldintza agirietan eskatutako dokumentazioa aurkezteko eta 6.301,77 euroko behin betiko bermea jartzeko.

Eskaerari erantzunez, enpresak behin betiko bermea jarri zuen, baina, hala ere, ez zitzaion baimendu behin-behineko bermearen kitapena.

Jarritako abalak indarrean jarraitzea justifikatzen duen inolako arrazoirik ez dagoenez, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Banco Sabadall S.A.-k CESPA COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS AUXILIARES S.A. enpresaren alde 2010eko ekainaren 14an emandako 11688/03 zenbakidun abalaren kitapena baimentzea. Abala 4.166,72 eurokoa zen eta KALE GARBIKETA ETA ANTZERAKO LANAK ESKORIATZAN EGITEKO ZERBITZU PUBLIKOAREN KONTRATAZIOTIK sortutako betebeharrak beteko ziren berme bezala jarri zen.

**Bigarrena.-** Abalaren originala CESPA, COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A. enpresari itzultzea kitapena kudeatu dezan.

**4.- IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILETZAK 2018ko LAUGARREN HIRUHILEKOAN JARRITAKO ERAGOZPENAK.**

Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzailetzak legezkotasun hainbat eragozpen jarri dizkienez Alkatetzak 2018ko urriaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra arte hartutako erabakiei, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/204 Legegintzako Errege Dekretuko 218. artikuluan ezarritakoaren arabera, txostena aurkezten zaio Udalbatzarrari eragozpen horien aurka hartutako erabakien berri emateko.

Ondoren labur azaltzen dira Udalbatzarrak izandako erabakien eta eragozpenen berri:

*1.- "Justifikatzeko" igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari egindako eragozpen-txostena. (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT)*
*(Kultura zerbitzuari emandako 7/2018 kutxa aurrerakina).*

*2.- "Justifikatzeko" igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari egindako eragozpen-txostena. (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT)*
*(Kultura zerbitzuari emandako 8/2018 kutxa aurrerakina).*

*3.- "Justifikatzeko" igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari egindako eragozpen-txostena. (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT)*
*(Kultura zerbitzuari emandako 11/2018 kutxa aurrerakina).*

*4.- "Justifikatzeko" igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari egindako eragozpen-txostena. (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT)*
*(Museoari emandako kutxa aurrerakina, 1/2018).*

*8.- Errekan Gora 2018 antolatzeagatik ATXORROTX KULTUR ELKARTEARI emandako diru laguntza kitapenari jarritako eragozpen-txostena.*

*(ez da justifikatu diru laguntzaren % 100 zertarako erabili den).*

*6.- Aste Zapatista 2018 antolatzeagatik ASOCIACION TEPEZ DE SOLIDARIDAD CON TXIAPASI emandako diru laguntza kitapenari jarritako eragozpen-txostena.*

*(ez da justifikatu diru laguntzaren % 100 zertarako erabili den).*

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 9 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

**5.- GIZADI ELKARTEAK 2014an JARRITAKO BERMEA ITZULTZEA.**

GIZADI ASOCIACION DE ASISTENCIA INTEGRAL DOMICILIARIA enpresak 2014ko abenduaren 5ean jarri zuen Kuntxabank S.A.-k emandako abala Udalbatzarrak, 2014ko abenduaren 9an egindako bilkuran, ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA zerbitzua emateko esleitutako kontratutik sortutako betebeharrak zuzen beteko ziren berme bezala.

Kontratuaren indarraldia 2018ko abenduaren 31n amaituta, aipatutako abala kitatzeko baimena eskatu du.

Zerbitzu teknikoek egindako txostena ikusita, eta Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Kutxabank S.A.-k GIZADI ASOCIACION DE ASISTENCIA INTEGRAL DOMICILIARIA enpresaren alde jaulkitako 1402849245 zenbakiko abala kitatzeko baimena ematea. Abal hori 16.228,80 eurokoa da eta ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA zerbitzua emateko kontratutik sortutako betebeharrak zuzen beteko ziren berme bezala jarri zen.

**Bigarrena.-** Abal honen originala helaraztea GIZADI ASOCIACION DE ASISTENCIA INTEGRAL DOMICILIARIA enpresari, abala kitatu dezan.

**6.- GALDE-ESKEAK.**

6.1.- Leterako bideko obrak

Aitor Zubizarretak galdetu du ea noiz hasiko diren Leterako bidea konpontzeko obrak.

Josuk erantzun dio lanak Gipuzkoako Foru Aldundiak esleitu dituela, eta horregatik ez duela informazio oso zehatza, baina, jakinarazi ziotenez, aste honetan hastekoak zirela, eta, izatez, exekuzioa gaur hasi dela eta 8 edo 10 astetako epea duela amaitzeko.

6.2.- Aranburuzabala-Dorletako obrak

Aitor Zubizarretak Aranburuzabalaren eta Dorletaren arteko oinezkoentzako bidea egokitzeko eta hobetzeko obren exekuzioari buruz galdetu du

Josu Ezkurdiak erantzun dio Aranburuzabalan aurreikusitako espaloia pare bat egunetan amaituta egotea aurreikusten dela, eta bigarren fase baterako oinezkoentzako zubia lehiaketara ateratzea eta egitea geldituko litzatekeela. Jarduera horrek, esan du, Uraren Euskal Agentziaren baimena ere behar du.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:10ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

ESKORIATZAKO UDALA
idazkaritza
kontuhartzailetza

MIREN EDURNE ITURBE LASCURAIN
Data / Fecha: 2019/02/27

## 1.- APROBACION DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebradas el 23/10/2018, 26/11/2018, 4/12/2018 y 11/12/2018.

## 2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDIA

Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta fecha 16 de enero de 2019 y de forma expresa de la Resolución por la que se acuerda aprobar el expediente de modificación de créditos Nº 26/2018.

## 3.- DEVOLUCION DE FIANZA PROVISIONAL DEPOSITADA EN 2010 POR CESPA, COMPAÑÍA ESPAÑOLA SE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A

Durante el mes de junio de 2010 CESPA, COMPAÑÏA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A. depositó aval emitido por el Banco de Sabadell S.A. en concepto de garantía provisional y para el correcto cumplimiento de las obligaciones derivadas de la CONTRATACION DEL SERVICIO PUBLICO DE LIMPIEZA URBANA Y OTROS AFINES EN EL MUNICIPIO DE ESKORIATZA.

Por acuerdo del Pleno del Ayuntamiento de fecha 8 de mayo de 2010 se adjudicó provisionalmente el contrato a la empresa CESPA COMPAÑÏA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A. el precio de 136.118,26 euros al año (IVA incluido) y con sujeción a los Pliegos de Cláusulas Administrativas , al de Condiciones Técnicas y a las mejoras introducidas por el adjudicatario en su oferta.

En el mismo acuerdo se requería a la empresa la presentación de la documentación correspondiente según los pliegos que rigen la contratación, así como la constitución de la garantía definitiva por importe de 6.301,77euros.

En respuesta al anterior requerimiento, la empresa depositó la garantía definitiva y sin embargo no fue tramitada la cancelación de la garantía provisional

No habiendo razón alguna que justifique la vigencia del aval depositado, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**Primero:** Autorizar la cancelación del aval N.º 11688/03 , emitido por el Banco de Sabadell S.A. en fecha 14 de junio de 2010 a favor de CESPA COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS AUXILIARES S.A, por un importe de 4.166.72 € y en concepto de garantía del cumplimiento de las obligaciones derivadas de la CONTRRATACION DEL SERVICIO PUBLICO DE LIMPIEZA URBANA Y OTROS AFINES EN EL MUNICIPIO DE ESKORIATZA

**Segundo:** Dar traslado del original de dicho aval a CESPA, COMPAÑÏA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A. al objeto de que gestione la cancelación del mismo.

**4.- REPAROS INTERPUESTOS POR SECRETARÍA-INTEVENCION DURANTE EL CUARTO TRIMESTRE DE 2018.**

Dado que por la Secretaría-Intervención de este Ayuntamiento han sido efectuados una serie de Reparos de legalidad a Resoluciones y acuerdos adoptados por la Alcaldía desde el 1 de octubre de 2018 al 31 de diciembre 2018, de conformidad con lo dispuesto en el art. 218 del RDL 2/204 de 5 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, se eleva informe al Pleno para dar cuenta de la Resoluciones adoptadas contrarias a dichos reparos.

A continuación se hace una reseña de las resoluciones y los reparos de los que ha tomado cuenta el Pleno:

*1.- INFORME REPAROS al reconocimiento de obligaciones por falta de justificación de fondos librados "a justificar" (FALTAN FACTURAS O ALGUNAS NO SON CONFORMES)(Anticipio de caja concedido al área de cultura, nº 7/2018)*

*2.- INFORME REPAROS al reconocimiento de obligaciones por falta de justificación de fondos librados "a justificar" (FALTAN FACTURAS O ALGUNAS NO SON CONFORMES)(Anticipio de caja concedido al área de cultura, nº 8/2018)*

*3.- INFORME REPAROS al reconocimiento de obligaciones por falta de justificación de fondos librados "a justificar" (FALTAN FACTURAS O ALGUNAS NO SON CONFORMES)(Anticipio de caja concedido al área de cultura, nº 11/2018)*

*4.- <u>INFORME REPAROS</u> al reconocimiento de obligaciones por falta de justificación de fondos librados "a justificar" (FALTAN FACTURAS O ALGUNAS NO SON CONFORMES)(Anticipio de caja concedido al museo , nº 1/2018)*

*5.- <u>INFORME REPAROS</u> relativa a la liquidación de la subvención concedida en 2018 a ATXORROTX KULTUR ELKARTEA para Errekan Gora 2018*

*(No se justifica la necesidad del 100% de la subvención)*

*6.- <u>INFORME REPAROS</u> relativa a la liquidación de la subvención concedida en 2018 a*

*A ASOCIACION TEPEZ DE SOLIDARIDAD CON CHIAPAS para Semana Zapatista 2018.*

*(No se justifica la necesidad del 100% de la subvención*

El Pleno, con la asistencia de 9 de los 11 concejales que legalmente lo componen, da por recibida dicha información.

## <u>5.- DEVOLUCION DE GARANTIA DEPOSITADA EN 2014 POR GIZADI ELKARTEA</u>

Con fecha 5 de diciembre de 2014 GIZADI ASOCIACION DE ASISTENCIA INTEGRAL DOMICILIARIA depositó aval emitido por el Kutxabank S.A. en garantía del correcto cumplimiento de las obligaciones derivadas del contrato de prestación del servicio de AYUDA DOMICILIARIA, adjudicado por acuerdo plenario de fecha 9 de diciembre de 2014.

Finalizada la vigencia del contrato el pasado 31 de diciembre de 2018, solicita se le autorice la cancelación de dicho aval.

Visto el informe emitido por los servicios técnicos y de conformidad con el mismo y la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Servicios Sociales, el Pleno por unanimidad ACUERDA:

**<u>Primero:</u>** Autorizar la cancelación del aval N.º 1402849245, emitido por el Kutxabank S.A. a favor de GIZADI ASOCIACION DE ASISTENCIA INTEGRAL DOMICILIARIA. , por un importe de 16.228,80 € y en concepto de garantía del cumplimiento de las obligaciones derivadas del contrato de prestación del servicio de limpieza de AYUDA DOMICILIARIA

**Segundo:** Dar traslado del original de dicho aval a GIZADI ASOCIACION DE ASISTENCIA INTEGRAL DOMICILIARIA al objeto de que gestione la cancelación del mismo.

**6.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

6.1.- Obras de acceso a Lete

Aitor Zubizarreta pregunta cuándo comenzarán las obras de arreglo del camino de acceso a Lete.

Josu le responde que la obras han sido adjudicadas por la Diputación Foral de GIpuzkoa, que por eso no tiene una información muy precisa, pero que según se le hizo saber eran de empezar esta semana y la ejecución, de hecho, ha comenzado hoy con un plazo de duración de 8 o 10 semanas.

6.2.- Obras Aranburuzabala-Dorleta

Aitor Zubizarreta pregunta sobre el estado de ejecución de las obras de acondicionamiento y mejora del acceso peatonal entre Aranburuzabala y Dorleta.

Josu Ezkurdia le responde que la acera prevista en Aranburuzabla se prevé esté terminada en un par de días y que quedaría pendiente de licitar y ejecutar en una segunda fase la ejecución de un puente para el paso de peatones. Dicha actuación, añade, requiere también la autorización de la Agencia Vasca de Agua.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18: 10 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**